

9.ATALA: KOSTUEN EGITURA

Gure enpresan langileak aseguratuta dauzkagu, eta, beraz, horiek gastu finkoak dira gure enpresarentzat, nahiz eta aldatu egingo diren enpresak eboluzionatzen duen heinean, lehen ere izendatu dugu zer nolako langileak izango ditugun gure proiektuan, konpainiaren zikloak aurrera egin ahala, enpresaren beharretara hobeto egokitzen diren profesional gehiago kontratatuko ditugu. Gainera, enpresa guztiek bezala argi-, ur-, alokairu- eta gas-gastuak ditugu, gastu finkoen barruan sartzen direnak, langileekin aipatu dugun bezala, gastu horiek enpresaren garapenaren arabera joango dira, eta gure produktuaren salmentan igoera handia egotea aurreikusi dugu; beraz, gastu horiek handitzen joango dira.

Gastu aldakorrak ere baditugu; adibidez, web orria, lehen urtean gehiago kostatuko zaiguna, langile gehiago beharko baititugu zerotik sortzeko. Eskura dugun beste gastu aldakor bat patentea da. Gure enpresarentzako aukera egokiaena zein den eztabaidatzeko bildu ondoren, hamar urterekin berritzeko patentea erostea erabaki dugu lehen urte honetan. Aurreko gastuekin azaldu dugun bezala, ideiaen aurrerapenaren arabera da hori ere; izan ere, ideia aurrera doala ikusten badugu, hogeituroko berritze-data duen patentea hartzea erabaki dugu. Hori da egingo dugun lehen ekintzetako bat, gure produktua hedapen handiagoko beste marka batzuek plagiatu dezaketela uste baitugu, eta, horrela, gure produktuarekiko edozein imitazio edo ahalegin saihestuko dugu.

Gure enpresak izango duen azken gastua azalduko dugu. Hori izango da gure produktua sortzeko erabiliko dugun makineria, eta lehen urte hau gastu aldakorra izango da; izan ere, makinaren egokitzapenak enpresaren hazkundearen arabera joko du, lehenengo urtea gure proiektuaren urte esperimentaltzat hartuko baitugu. Horrela, espero dugu bigarren urtea gutxienez kostu finkotzat hartzea.